# BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEN, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA GALDAMESKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-PROTOKOLOA, ANTONIO DE TRUEBA ENKARTERRIKO IDAZLEAREN JAIOTZAREN BERREHUNGARREN URTEURRENA OSPATZEKO

Urriaren 15ean, astelehenean, **Bizkaiko Batzar Nagusiek, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Galdamesko Udalak** lankidetza-hitzarmen bat sinatu dute 2019an Antonio de Truebaren jaiotzaren berrehungarren urteurrena ospatzeko. **Protokoloa hauek sinatu dute: Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako buruak, Lorea Bilbao Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura diputatuak eta Raquel Larruskain Galdamesko alkateak. Galdamesko Montellano** auzoan izan da ekitaldia, Enkarterriko idazlea jaio zen etxean.

Ekitaldian izan dira erakundeetako ordezkariak, eskualdeko alkateak, herritarrak eta kultura-elkarteetako ordezkariak. Goizeko 10:30ean hasi da, poeta jaio zen herrixkaren erdigunean. Galdamesko txistulariek lagunduta, agintariak kronikari bizkaitarraren etxearen hondarrak eta 1930ean haren omenez jarri zen monumentua dauden orubera joan dira.

Han, **Raquel Larruskain** Galdamesko alkateak, bere udalerriaren ordezkari gisa, ongi etorria egin die herrira etorri diren guztiei. Ekitaldia gauzatu den leku enblematiko horren garrantzia azpimarratu du, eta eskerrak eman ditu protokolo hau sinatzeko aukera izateagatik eta azken urteetan kultura-elkarteek Truebaren irudiarekin lotuta egin duten lanarengatik.

Ongietorriaren ondoren, **Ana Otadui**k, Bizkaiko Batzar Nagusietako buruak, erakunde arteko protokolo hori sinatzearen garrantzia azpimarratu du, eta esan du Trueba Enkarterriko bizkaitar esanguratsuenetako bat izan zela; hain zuzen, 1862an, foruak indargabetu baino 14 urte lehenago, hura Bizkaiko jaurerriko kronikari eta artxibozain izendatzea proposatu zuten Bizkaiko Batzar Nagusiek. Batzar Nagusietako buruak aipatu du, halaber, protokoloa garrantzitsua izango dela Enkarterrietako Museoarentzat, zeina, Otaduiren hitzetan, eskualdeko ondare historikoa ikertzeko eta zabaltzeko asmoz azken hamarkadetan egin den proiektu handiena baita.

Adierazi duen zuen bezala, lankidetza honen bidez abiaraziko diren ikasketak “Forukide hau bizi zen Bizkaia hobeto ezagutzeko aukera emango dizkigu”. Gainera, “berak egin zuen Foru tradizioaren birsortzean zein alde diren mito erromantikoak” bereiztu ahal izango ditugu, Deiadar Mendietako deialdia adibidez.

“Truebaren ekarpenak zuen eskualdetik kanpo hedatzen direla uste dugu, Bizkaitar guztien ondare bihurtzeko”, Batzar Nagusiko Presidenteak agerian utzi du. Ez alferrik, Bizkaiko Foru Aldundiak Antonio Trueba Bizkaiko Aita izendatu zuen. Horregatik, bere jaiotzatik bi mende igaro direla eta, Foru Aldundiak eta Galdames Udalak, "gure lurralde historikoari egindako ekarpenen zordunak garela onartuz" lankidetza honen bidez "Bizkaiak Antonio Truebarekin eta De la Quintanarekin zorra duen garbitzeko” lagundu nahi dute.

Jarraian, Foru Aldundiko Euskara eta Kultura diputatu **Lorea Bilbao**k ere protokoloaren edukiaren balioa azpimarratu du. Haren ustez, idazlea jaio zen orube ederra eta bertan kokatutako Manuel María Smith eskultorearen monumentua seinaleztatzen, argiztatzen eta ezagutarazten lagunduko du. Halaber, ikerketa historiko bat argitaratzeko aukera emango du eta, horren harira, Truebari eta haren garaiari buruzko erakusketa dibulgatzaile bat antolatuko da Enkaterrietako Museoan eta Bilboko Ondare aretoan. Bestetik, protokolo honi esker biltzar zientifiko bat antolatuko da Foru Agiritegian, eta Galdamesko Udalak konpromisoa hartzen du Truebaren oroimenez egiten diren gizarte- eta herri-ekimen guztiak babesteko.

**Joseba Agirreazkuenaga** historialariak ere parte hartu du ekitaldian, proiektuko kolaboratzaile gisa, eta Truebaren bizitzari eta obrari buruzko zenbait datu eman ditu. Idazlearen senideek ere protokoloa sinatzeko ekitaldian egon nahi izan dute, eta eskerrak eman dituzte beren arbasoari omenaldia egiten jarraitzeagatik, hura jaio eta bi mende geroago.

Ekitaldia girotzeko, bertan izan dira Galdamesko Jon Ander Amigo eta Zuriñe Inzunza musikari gazteak eta Jokin Castaños bertsolaria, galdamestarra azken hori ere.

Protokoloa sinatu ondoren, luncha egon da bertaratu diren pertsona, erakunde, herritar eta elkarteentzat, hots, Enkarterriko edertasuna beste inork baino hobeto islatu zuen idazlearen irudiarekin konprometitutako pertsona guztientzat.

## “Antonio Trueba y su época” proiektua

Proiektuaren bidez, Antonio de Truebaren figura eta lana ikertu eta zabaldu nahi da. Horretarako, Bizkaiko Batzar Nagusien menpeko Enkarterrietako Museoak lau ikerlarirekin egingo du lan (Joseba Agirreazkuenaga, EHUko historia garaikidean

katedraduna; Montserrat Amores, Kataluniako Unibertsitate Autonomoko irakaslea; Jesús Arrate, XIX. mendean aditua den ikerlaria; eta Goio Bañales, Enkarterrin aditua den ikerlaria). Taldea Enkarterrietako Museoko zuzendari tekniko Javier Barrio Marrok koordinatuko du.

Lan honetatik abiatuta, askotariko erakusketak, argitalpenak eta jarduerak egingo dira 2019an eta 2020an zehar. Galdamesko Udalak ere askotariko jarduerak antolatuko ditu aldi horretan, udalerriko eta eskualdeko kultura-elkarteek lagunduta. Bizkaiko Foru Aldundia, bere aldetik, Galdamesko Udalarekin lankidetzan arituko da, Montellanon kokatutako monumentua zaharberritzeko; eta Enkarterrietako Museoan eginiko erakusketa Ondare aretora (Bilbo) eramango du, proiektua hitzaldi-jardunaldi batzuekin borobiltzeko.

## Antonio de Truebaren figura

Antoni de Trueba XIX. mendeko bizkaitar ezagunenetako bat izan zen. Nobela eta ipuin ugari idatzi zituen eta etnografikotzat jo genezakeen lana ere egin zuen; izan ere, Bizkaiko istorio eta tradizio asko jaso eta ipuin eta kontakizun laburren forma eman zien. Horrez gain, garai hartako egunkari askotan ere argitalpenak egin zituen.

Bere garaian, **oso pertsonaia ezaguna eta baloratua izan zen**. Hori dela eta, Bizkaiko Batzar Nagusiek Madriletik itzultzeko eskatu zioten (bertan ari zen lanean), eta **jaurerriko kronikari eta artxibozain** izendatu zuten **1862**an. Eta beranduago, ospe handiko pertsonaia zelarik, **probintziako aita** izendapena jaso zuen **1876**an.

Bere ospea hain izan zen handia, non hil ondoren **herriak ordaindutako eskultura bat** egin zitzaion. **Mariano Benlliure**k eginiko eskultura hori **Albia lorategian jarri zen**, eta bertan jarraitzen du gaur ere, beheko argazkian ikus daitekeen moduan. **Manuel María de Smithek ere beste monumentu bat egin zuen, Truebaren jaiotetxearen hondarrak egokituta**, eta iturri bihurtutako monolito handi bat gehituta. Bertan sinatu da protokoloa.

## Truebaren rola eta garrantzia Bizkaiko eta Euskadiko historian

Antonio de Trueba erromantiko bat izan zen, eta bere garaiko egile gehienek bezalaxe, irudikatu zuen euskal munduaren gehiegizko idealizazioa leporatu zioten. Hala ere, idealizaziorako joera hori alde batera utzita, artxibozain eta kronikari lanei ekin zienean, **Bizkaiko bizimodu, ondare eta ohituren deskribapen ugari utzi zizkigun (garaiko egunkarietan argitaratuak)**; eta horiei esker, XIX. mendea hobetu ulertu ahal izan dugu. Mende hori ezinbestekoa izan zen gure gizartearentzat, orduan gertatu

baitzen gizarte tradizionalaren eta egungoaren arteko bereizketa. Horri guztiari poesia, nobela eta ipuin ugari gehitu behar zaizkio, horiek ere ospe handia eman baitzioten.

**Baina, agian, beste guztiaren gainetik, nabarmendu behar genuke rol garrantzitsua bete zuela, beste garaikide batzuek bezala, XIX. mendeko Bizkaiko gizartearen aldeko kontzientzia-hartzean, euren kultura eta nortasunari dagokionez.**

Hori horrela, Truebari eta beste erromantiko batzuei esker, gizarteak gertatzen ari zen garapen ekonomiko eta soziala onartzeaz gain, ohartu zen zuela mende asko oinordetzan hartutako tradizioak, ohiturak, ondareak eta hizkuntza defendatu behar zirela.

**Zalantzarik gabe, euskararen garrantziaren eta euskaldunen berezko idiosinkrasiaren kontzientzia-hartzean** (Trueba foruen defendatzaile sutsua izan zen), zeina gerora euskal gizarte osoan zabaldu baitzen, zeresan handia izan zuten egile erromantikoek; eta haien artean, Antonio de Trueba nabarmendu dezakegu.

Hori dela eta, eta bere lanetako asko ñabardura kritiko baten menpe jarri behar ditugula ukatu gabe, Antonio de Truebari eta beste egile erromantiko askori eskertu behar diegu euskal gizarteari eman zioten laguntza, euskararen garrantziaz eta euskal idiosinkrasiaz jabetzeko.

# FIRMA PROTOCOLO DE COLABORACIÓN ENTRE JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA, DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y AYUNTAMIENTO DE GALDAMES PARA CONMEMORAR EL BICENTENARIO DEL NACIMIENTO DEL ESCRITOR ENCARTADO ANTONIO DE TRUEBA

Este lunes, 15 de octubre, **Juntas Generales de Bizkaia, Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Galdames** han llevado a cabo la firma de un protocolo de colaboración con motivo de la celebración en 2019 del bicentenario del nacimiento de Antonio de Trueba. **Este protocolo ha sido firmado por la presidenta de Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, la Diputada Foral de Bizkaia de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao y la alcaldesa de Galdames, Raquel Larruskain**, en la casa natal del escritor encartado en el barrio de **Montellano, en Galdames.**

Rodeadas de instituciones, alcaldes y alcaldesas de la comarca, vecinos y vecinas y representantes de asociaciones culturales, el acto ha arrancado pasadas las 10:30 de la mañana en el centro de la aldea donde nació el poeta a ritmo de txistularis de Galdames que han acompañado a las distintas autoridades que se han dirigido al solar donde se encuentran los restos de su casa y el monumento que en 1930 se instaló en el lugar en homenaje al cronista de Bizkaia.

En este lugar la alcaldesa de Galdames, **Raquel Larruskain**, en representación de su municipio, ha dado la bienvenida a la localidad encartada ensalzando el lugar tan emblemático en el que se ha desarrollado el acto y agradeciendo la firma de este protocolo y la labor que a lo largo de estos años han llevado a cabo también las asociaciones culturales en torno a la figura de Trueba.

Tras la bienvenida, **Ana Otadui**, Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, ha destacado la importancia de la firma de este protocolo inter-institucional al mismo tiempo que ha calificado a Trueba como uno de los más grandes vizcaínos de Las Encartaciones que en 1862, 14 años antes de la abolición de los Fueros, fue propuesto desde Juntas Generales de Bizkaia como cronista y archivero del Señorío de Bizkaia. La Presidenta ha hecho también alusión al contenido del protocolo que supondrá, para el Museo de Las Encartaciones y en palabras de Otadui, uno de los proyectos más ambiciosos de las últimas décadas de investigación y difusión del patrimonio histórico y cultural de la comarca.

Tal y como ha explicado, los estudios que se pondrán en marcha gracias a esta colaboración "nos ayudarán a conocer mejor la Bizkaia en la que vivió este fuerista".

Además, permitirá descubrir "qué hay de mito romántico en su recreación de las tradiciones forales", como la llamada a Juntas desde los Montes Bocineros.

"Creemos que la aportación de Trueba transciende a vuestra comarca, para convertirse en patrimonio de toda Bizkaia", ha manifestado la Presidenta de las Juntas Generales. No en vano, Antonio Trueba fue nombrado por la Diputación Foral Padre de Bizkaia. Es por esta razón por la que, dos siglos después de su nacimiento, Diputación Foral y Ayuntamiento de Galdames, sintiéndose "deudores de su contribución a nuestro territorio histórico", pretenden con esta colaboración contribuir "a saldar la deuda de Bizkaia para con Antonio Trueba y De la Quintana".

Por su parte, **Lorea Bilbao**, Diputada Foral de Euskera y Cultura ha puesto también en valor el contenido del protocolo que permitirá señalizar, iluminar y dar a conocer el precioso solar y monumento del escultor Manuel María Smith ubicado en el mismo solar donde nació el escritor. Este protocolo también permitirá publicar una investigación histórica que dará lugar a la organización en el Museo de Las Encartaciones y en la sala Ondare de Bilbao de una divulgativa exposición sobre "Trueba y su época". Además, gracias a este protocolo se pondrá en marcha un congreso científico en el Archivo Foral y el propio Ayuntamiento de Galdames se comprometerá a apoyar las iniciativas sociales y populares en recuerdo de Trueba.

El historiador **Joseba Agirreazkuenaga** ha sido otra de las personas que ha participado en este acto como colaborador del proyecto dando unas pinceladas sobre la vida y obra de Trueba. Familiares del propio escritor no han querido perderse la firma de este protocolo y han estado presentes en el lugar mostrando su agradecimiento por seguir recordando a su antepasado dos siglos después de su nacimiento.

La firma del protocolo ha estado amenizada por dos jóvenes músicos de Galdames, Jon Ander Amigo y Zuriñe Inzunza y los bertsos del también natural de Galdames, Jokin Castaños.

Tras la firma del protocolo se ha llevado a cabo un lunch para todas las personas asistentes, instituciones, vecinos y vecinas, asociaciones y personas comprometidas con la figura de quien mejor retrató la belleza de Las Encartaciones.

## Proyecto "Antonio Trueba y su época"

El proyecto pretende investigar y difundir la figura y el trabajo de Antonio de Trueba. Para ello el Museo de Las Encartaciones, perteneciente a Juntas Generales de Bizkaia, trabajará con cuatro investigadores (Joseba Agirreazkuenaga, catedrático de historia contemporánea de la UPV; Montserrat Amores, profesora de la Universidad Autónoma

de Cataluña; Jesús Arrate, investigador especializado en el siglo XIX; y Goio Bañales, investigador especializado en Las Encartaciones, todos coordinados por Javier Barrio Marro, director técnico del Museo de Las Encartaciones).

De aquí derivarán exposiciones, publicaciones y actividades diversas a lo largo de 2019 y 2020. También el Ayuntamiento de Galdames realizará actividades diversas durante este periodo junto a asociaciones culturales del municipio y la comarca. La Diputación Foral de Bizkaia, por su parte, colaborará con el Ayuntamiento de Galdames en la restauración del monumento situado en Montellano y trasladará la exposición realizada en el Museo de Las Encartaciones a la Sala Ondare (Bilbao) donde culminará el proyecto con unas Jornadas de Conferencias.

## La figura de Antonio de Trueba

Antonio de Trueba fue una de las figuras vizcaínas más conocidas durante el siglo XIX. Autor de numerosas novelas y cuentos, realizó también una labor que podríamos considerar etnográfica al recoger historias y tradiciones vizcaínas que adaptó en forma de cuentos y relatos cortos y que también publicó en numerosos periódicos de la época.

En su época **fue un personaje famosísimo y muy valorado** lo que llevó a que Juntas Generales de Bizkaia solicitara su regreso de Madrid (donde llevaba años residiendo por temas laborales) para nombrarle **Cronista y Archivo del Señorío (1862)** e incluso más tarde, siendo un personaje de mucha relevancia, fue nombrado **Padre de la Provincia en 1876.**

Su fama llegó a ser tal que, tras su muerte, se le dedicó una esc**ultura sufragada por suscripción popular y que fue colocada en los Jardines de Albia** -realizada por **Mariano Benlliure**-, donde aún continúa y podemos ver en la foto inferior. Igualmente se realizó **otro monumento, obra de Manuel María de Smith, adaptando los restos de su casa natal en Montellano** y añadiéndole un gran monolito convertido en fuente, lugar donde se ha realizado la firma del protocolo.

## Su papel e importancia en la historia de Bizkaia y Euskadi

Antonio de Trueba fue un romántico y, como la gran mayoría de los autores de su época, ha recibido críticas por la excesiva idealización que hizo del mundo vasco que retrató. Aun así, a pesar de esa tendencia a la idealización, cuando se centró en su labor de cronista y archivero **nos legó numerosas descripciones -publicadas en periódicos de la época- de la vida, patrimonio y tradiciones de su Bizkaia natal** que han ayudado a entender el siglo XIX, clave para nosotros y nosotras ya que supuso el

paso de la sociedad tradicional a la sociedad en la que actualmente vivimos. A todo ello hay que sumarle sus numerosísimas poesías, novelas y cuentos que tanta fama le dieron.

**Pero quizás por encima de todo tenemos que recalcar la importancia que tuvo, como otros contemporáneos, en la toma de conciencia por parte de la sociedad vizcaína del siglo XIX de su propia cultura y personalidad**.

De esta manera, gracias a Trueba y otros románticos, la sociedad, además de asumir el desarrollo económico y social que se estaba produciendo, se dio cuenta de que había que defender las tradiciones, costumbres, patrimonios y lengua heredados de siglos atrás.

**Sin duda, en la toma de conciencia de la importancia del euskera y de la idiosincrasia propia de los vascos** -Trueba fue un furibundo defensor de los fueros- que se expandió por todo el mundo vasco tuvieron mucho que decir los autores románticos, destacando sobre todos ellos Antonio de Trueba.

Por ello, y sin negar que muchos de sus trabajos tenemos que pasarlos por un matiz crítico, tenemos que agradecer a Antonio de Trueba y a otros autores románticos que ayudasen a que la población tomase conciencia de la importancia del euskera y de la idiosincrasia vasca.